

2019KO UZTAILAREN 24AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZ KANPOKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohiz kanpoko bilkura egiteko:

- 1.- DONE JAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN ESLEIPEN ERABAKIEN BERRI EMATEA.
- 2.- 2018KO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.
- 3.- 2019 UDAL AURREKONTUAREN 3/2019 KREDITU ALDAKETA.
- 4.- EUDEL. UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO PROPOSAMENA.
- 5.- EUSKERA PLANARI BURUZKO ADIERAZPENA.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- DONE JAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN ESLEIPEN ERABAKIEN BERRI EMATEA.

Idazkariak, Alkateak, 2019ko uztailaren 1ean hartutako 01/0719 erabakiaren berr ematen du, honakoaren arabera:

“ Zegamako Donejakue Bideko Peregrino Etxearen lanak egitea kontratatzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia:

- 1.- Lizitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2019-05-02
- 2.- Eskaintzen aurkezpena: 2019-05-28 arte, 14.00 orduak.
- 3.- “A” kartazalaren irekiera, “kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta balio judizio bidez balioztatu daitezkeen irizpideak”: 2019-06-3 14:00 orduetan.
- 4.- “B” kartazalaren irekiera “diru-proposamena eta automatikoki balioesteko irizpideak”: 2019-06-11 14:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2019ko ekainaren 11n, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua honakoaren arabera esleitzea:

- 1 atala.- Obra gehigarriak.

MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. (IFK.-B-20986428)

Prezioa: 129.842,43 euro gehi 27.266,91 euro BEZ (%21), guztira 157.109,34 euro.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta 3 hilabete eta erdiko egite epea).

- 2 atala.- Egitura eta gainazala:

EGOIN S.A. (IFK.A-48427074)

Prezioa: 82.975,60 euro gehi 17.424,87 euro BEZ (%21), guztira 100.400,47 euro.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta 3 hilabeteko egite epea).

Administrazio baldintzen pleguko 17. klausulan adierazitakoaren arabera, kontratazio organoak esleipendunari bertan ezarritako agiriak eskatu zizkion.

Agiri horiek aurkeztu ondoren, Alkatetza honek, Toki Araubideari buruzko arauak ematen dizkidan aginpideak erabiliz, honako hau ebatzen du:

Lehena.- Erreferentziaiko kontratua esleitzea, hurrengo era honetan:

- 1 atala.- Obra gehigarriak.

MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. (IFK.-B-20986428)

Prezioa: 129.842,43 euro gehi 27.266,91 euro BEZ (%21), guztira 157.109,34 euro.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta 3 hilabete eta erdiko egite epea).

Bermearen zenbatekoa: 6.492,12 euro.

- 2 atala.- Egitura eta gainazala:

EGOIN S.A. (IFK.A-48427074)

Prezioa: 82.975,60 euro gehi 17.424,87 euro BEZ (%21), guztira 100.400,47 euro.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta 3 hilabeteko egite epea).

Bermearen zenbatekoa: 4.148,78 euro.

Pleguan eta proposamenean jasotako gainontzeko baldintzak.

Bigarrena.- Esleipena, enpresa lizitatzailer guztiei jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpena, Euskadiko Kontratatzaileraren Profilean argitaratzea.

Laugarrena.- Kontratua formalizatzea 15 laneguneko epean, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik.

Bosgarrena.- Ebazpen hau, dagozkien udal departamentuei helaraztea. Era berean, Udalbatzarrari jakinaraziko zaio, honek burutuko duen hurrengo ohiko bilkuran.

Seigarrena.- Ebazpen hau irmoa da eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjapen errekurtsioa aurkezteko Alkateari, hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjapen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Bestalde, Administrazioak birjapen errekurtsioa erantzun gabe utziz gero, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsioa

aurkezteko, birjapen errekurtsua jartzen den egunetik aurrera kontatzen hasita.

Interesdunei legearen arabera jakinarazi dadila.”

Ebazpena ikusi eta izapideen azalpena egin ondoren, Udalbatzarrak, honen berri jaso eta aho batez, hau berresten du.

2.- 2018KO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Espedientea ikusirik

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2018ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2019ko maiatzaren 29ko 100 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko alean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- 1) 2018ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.
- 2) Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

3.- 2019 UDAL AURREKONTUAREN 3/2019 KREDITU ALDAKETA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNTEN EROSKETAK	38.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	60.690,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		98.690,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	31.024,10
8	FINANTZA AKTIBOAK	67.665,90
GUZTIRA		98.690,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4.- EUDEL. UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO PROPOSAMENA.

2019/01/22an EUDELek zirkular bat bidali zien Euskadiko udalei, horren bidez hainbat gomendio emanaz, 2019ko enplegatu publikoentzako ordainsarien igoerei lotutakoak.

Zegamako Udaltzarrak, 2019ko otsailaren 12an egin zuen bilkuran, adierazitako gomendioa onartu zuen.

Zirkular horretan adierazi zen legez, 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3.2 artikularen bigarren zatia arabera, posible izango zela ordainsariak modu gehigarrian igotzea, 2019/07/01etik aurrerako eraginarekin; igoera hori barne produktu gordinaren hazkundeari dago lotuta, eta Ministro Kontseiluaren erabakiak zehaztu behar zuen ehunekoa.

Ildo horretatik, jakinarazten da Ministro Kontseiluak 2019/06/21eko bileran, %0,25eko igoera onetsi zuela, uztailaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Zentzu horretan, Udaltzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitakoaren arabera, Udal langileen ordainsariak legeak baimentzen duenaren arabera, %0,25 igotzea, uztailaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

5.- EUSKERA PLANARI BURUZKO ADIERAZPENA.

Zegamako Udaleko Udalbatzarrak, 2014ko martxoaren 3an egin zuen bilkuran “Zegaman Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (V. Plangintzaldia 2013-2017)” onartu zuen.

Zentzu horretan ere, 2014ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Zegaman euskara sustatzeko “Plan Estrategikoa 2014-2017” eta kudeaketa planaren ekintza fitxa onartu zen.

Alkateak adierazten du Plan berria prestatzen den bitartean, adierazitako plana indarrean dagoela adieraztea dagokiola.

Ondorio horietarako, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Zegamako Udalaren 2014-2017ko ERABILERA PLANA, 2019an zehar ere (eta bere kasuan, hau onartzen den bitarteko ekitaldietan) indarrean egon dela, plan berri bat onartu arte.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztatuturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019kok

O.E./ V°B°

ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO